



JASO FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I.- TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena.

JASO FUNDAZIOA izeneko fundazioa eratu da, Euskal Autonomi erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearekin eta indarreko xedapen arauemaileekin bat etorritz.

JASO FUNDAZIOA izeneko fundazioa, berez, irabazteko asmorik gabeko erakundea da. Sortzaileek hala nahita, fundazioaren ondarea modu iraunkorrean erabiliko da, interes orokorreko helburu jakin batzuk betetzeko; helburu horiek deskribatuta daude estatutu hauen 3. artikuluan.

Fundazioaren iraupena mugagabea da.

2. artikulua.- Araubidea, nortasuna eta gaitasun juridikoa.

Fundazioak nortasun juridiko berezkoa eta independentea du, eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik; eta, erabateko gaitasun juridikoaz gain, jarduteko gaitasuna ere badu. Fundazioaren mugak izango dira, bakar-bakarrik, eratzaileek eratze-aktan bertan zein borondate-aitorpen egin, eta aitorpen horren ondorioz estatutu hauetan ezarritakoak; eta, orobat, lege-xedapen aplikagarrietan, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoak.

Ondorenean, eta Babesletzak jaso beharreko komunikazioei kalterik egin gabe, fundazioak mota guztietako ondasun higigarriak, higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki, xedatu, besterendu eta zamatuta ahal izango ditu, edozein bide erabilita; orotariko egintzak edo kontratuak egin ahal izango ditu; baita maileguak jaso eta ordaindu ere; transakzioak egin eta gobernu-bidea nahiz auzibidera jo ahal izango du epaitegietan, auzitegietan eta erakunde publiko nahiz pribatuetan mota guztietako akzioak eta salbuespenak egikaritzeko, betiere, antolamendu juridikoan ezarritakoaren mende.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

JASO FUNDAZIOA-ren helburu nagusia Euskal herriko gizarte zibilaren garapena da, horretarako edozein Kultur, hezipen, aisialdi, osasun eta kirol ekintzak antolatuaz, beti euskara hizkuntza baliabidetzat izanez.

4.artikulua.- Helburuak garatzea.

Fundazioak bere helburuak garatu ahal izango ditu, berak egoki ikusten duen moduan, baita beste entitate eta erakunde batzuetan parte hartuz ere. Horretarako, muga bakarrak izango dira eratze-agirian ezarritakoak, estatutu hauetan finkatutakoak, et, betiere, legeetatik eratorritakoak.

5. artikulua.- Egoitza.

Fundazioaren egoitza Bilbon (Bizkaia), egongo da, Gran Vía 82, 5. Eskuinean.

Patronatuak askatasunez erabaki ahal izango du egoitza-aldaketa, eta hori egitekotan aldaketa helarazi egin beharko dio Fundazioen erregistroari.

Era berean, fundazioaren helburuak betetzean beharrian bereziak sortu ahal direnez gero, establezimenduak, ordezkariak edota bulegoak finkatu ahal izango dira; patronatuaren ahamena izango da horien guztien egoitzak erabakitzea.

Jabeak dira halaber JASOFUNDAZIOA.EUS nagusitasuneko domeninuko.

6.artikulua.- Lurralde-eremua.

Fundazioak bere helburuak garatuko ditu, batik bat, Euskal autonomia erkidegoan.

7. artikulua.- Onuradunak.

Fundazioak interes orokorreko zein helburu izan, helburu horien barruan jardun beharko du. Onuradunak aukeratzeko orduan, objektibotasun eta inpartzialtasun irizpideak aplikatuko ditu, inolako bereizkeriarik egin gabe.

Illo horretatik, aurretiaz deialdia egingo da onuradunak aukeratzeko, eta horiek hautatzeko erregelak eta prozedurak ezarriko dira. Betiere, kontuan hartuko dira hautagaien meritua eta gaitasuna eta espresuki haien euskararekiko konprometua.

Fundazioak, halaber, azterketa eta ikerlanak sustatuko ditu; eta, horretarako, laguntza ekonomikoak, materialak eta azpiegiturako laguntzak emango dizkie onuradun izateko meritua dituztenei, haien ezagutzak, ospea, gaitasuna eta jarduna kontuan hartuta. Artikulu honetan aipatutako entitate edo pertsona fisikoek zuzentzen dituzten lantaldeak ere fundazioaren onuradun izenda daitezke.

Pertsona juridikoak onuradunak izendatzeko, patronatuak kontuan hartuko du erakundeek eta entitateek zein jardura burutu duten, eta zein ospe aitortu zaien; eta horren arabera erabakiko du zein erakundek eta entitatek merezi duen fundazioaren laguntza materiala, ekonomikoa, irakaskuntzako laguntza nahiz ezagutzea jasotzea.



Fundazioaren jarduerak pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutako kolektibo orokorreari ekarri behar die onura. Onuraduntzat hartuko dira enpresa bateko edo batzuetako langileek eta horien senitartekoek osatutako kolektiboak. Nolanahi ere, onuradunak aukeratzeko irizpideek objektiboak eta inpartzialak behar dute izan.

Ezin izango da Fundazioaren helburu nagusia izan haren prestazioak eskaintzea hauei guztiei: fundatzaileei edo Patronatuko kideei, haien ezkontideei edo haiekin antzeko harreman afektiboak dutenei edo haien laugarren gradura bitarteko senideei (laugarrena barne), ez eta interes orokorra ez duten pertsona juridiko bereiziei ere.

Nolanahi ere, inork ere ezin izango du alegatu, ez bakarka ez taldeka, Fundazioaren edo Patronatuaren aurrean, onura horiek eman baino lehen baliatzeko aukera, ezta pertsona jakin batzuei emanarazi ere.

Baldin eta fundazioak bere onuradunei zenbatekoren bat ordaintzeko eskatzen badie eskaintzen dizkien zerbitzuen truke, zenbateko hori ordaintzen dutenak bakarrik hartu ahal izango dira onuraduntzat.

Bestalde, fundazioaren onuradunen kopurua mugatua izan behar denean, fundazioaren patronatuak hautatu eta zehaztuko ditu onuradun horiek, eta hautaketa ezeztatzina izango da; horretarako, kontuan hartuko ditu hautagaien merituenak, beharrianak, gaitasun ekonomikoa eta aprobetxatzeko aukerak, bai eta bestelako ezaugarri objektiboak ere.

8. artikulua.- Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak.

.Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu. Hau zuk egingo duzu ere Sarai?
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.
- e) Etengabeko lankidetzaren leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletozarekin.

f) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrira.

g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA. PATRONATUA

1.KAPITULUA. IZAERA.OSAERA ETA ESKUMENAK.

9. artikulua. Patronatua.

Patronatua da, izatez, fundazioa gobernatu, administratu eta ordezkatzeko organo gorena.

Patronatuak ahalmen guztiak izango ditu fundazioaren kudeaketa zuzendu eta kontrolatzeko, baldin eta ahalmenok beharrezkoak badira fundazioaren helburuak gauzatzeko. Hain zuzen ere, patronatuak administratuko ditu fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak.

10. artikulua. Osaera eta iraupena.

Patronatua, hasera batean pertsona soila izango du bizitzarako, bere fundatzaile soila, Javier Etxebeste Otegi, hain zuzen ere.

Heriotza, ezintasun, ezespen heriotza, bazterketa edo sorrerako zaindariaren bateraezintasun deklarazio gertatuz gero, Kontseiluko organo kolegiatua da. Kontseilua eratzekotan, Patronatuak gutxienez hiru kide izango ditu, eta gehienez hamabi.

Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira patronatukideak. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dute desgaituta egon kargu publikoak betetzeko. Patronatukideak diren pertsona juridikoek izendatu beharko dituzte organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak.

Hauek izango dira patronatukideak: Presidente eta Idazkaria. Gainera, Patronatuak diruzaina eta presidenteordea izendatu dezakete.

Patronatukideen karguak aldi baterako edo mugagabekoa izango da. Aldi baterako bada, 5 urteko iraupena izango du.

11.artikulua.- Patronoak izendatzea eta lanpostu hutsak betetzea.

Eratzaileak lehenengo patronatua izendatuko du eratze-eskrituran.



Patronu berriak izendatu behar direnean, patronatua zabaldu egin delako edota patronatu kideen ordezkioak izendatu behar direlako, patronatuak berak izendatuko du. Eta hori erabakitzeko, patronatu kideen gehiengoak gutxienez izendapenaren aldeko botoa eman beharko du.

Patronatuak hiru hilabeteko epean eman beharko dio bere kideen izendapenaren eta kargua utzi izanaren berri Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, izendatze- edo kargu uzte- akordioak hartzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Patronatukideek espresuki onartu beharko dute beren izendapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren baten arabera. Karguari uko egiten badiote, aipatu artikulua 2. atalean aurreikusitako moduren batean egin beharko dute.

Patronatukideen karguak baliogabetzea erabaki ahal izango du organo judizial eskudunak, erantzukizuneko jardunbidea abian jarri bada haien aurka legeak aurreikusitako prestasunez ez betetzeagatik.

Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira gobernuko organoko kideen izendapena eta kargua utzi izana.

12. artikulua.- Patronatukideen kargu uztearen arrazoiak.

1.- Patronatukideek kasu hauetan utziko diote patronatukide izateari:

- a) Hiltzen direnean edo hil egin direla deklaritzen denean, eta pertsona juridikoa azkentzen denean.
- b) Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaitasun- edo bateraezintasun-egoeraren batean gertatzen denean.
- c) Patronatukide izatera eraman zuten kargua betetzeari uzten diotenean.
- d) Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz betetzen ez dutenean, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez dutela hala bete.
- e) Ebazpen judizialez erantzukizun-akzioa onartzen denean.
- f) Agintaldia amaitzen zaienean, baldin eta aldi jakin baterako izendatu bazituzten.
- g) Karguari uko egiten diotenean.

13. artikulua. Patronatukideak ordezteak.

1.- Patronatukideak ordeztuko behar direnean, ordezkioak patronatuak berak izendatuko du, kideen gehiengoak gutxienez izendapenaren aldeko botoa eman behar duelarik.

Ezin direnean patronatukideak aipatuko eran ordeztu, Fundazioaren Legean aurreikusitako estatutu-aldaketara joko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du Fundazioa gobernatu eta ordezkatzeko duen organoa behin-behinean –hau da, estatutuak aldatu arte– osatuko duten kideak izendatzeko.

Uneren batean patronatukideak hiru baino gutxiago badira, patronatukide bakarreko kasuetan izan ezik, gainerako patronatukideek (beti ere haien kargua indarrean dagoela), edo fundatzaileek, hala badagokio, behar adina kide izendatu ahal izango dituzte legeak eskatzen duen gutxieneko kopurura iristeko, eta 30 eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesletzari horren berri emateko.

Fundazioko patronatukideen ordezkapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

14.artikulua.- Doakotasuna.

Fundazioetako patronatukideek doan jardungo dute beren karguan. Dena den, eginkizun horiei lotuta dituzten gastuen zenbatekoa itzuli egingo zaie, behar bezala justifikatuz gero.

Beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gainera Fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten patronatukideei ordainsari bat ematea erabaki dezake Patronatuak, salbu eta fundazioaren sortzaileek hori egitea espresuki debekatzen badute. Erabaki hori Babesletzak baimendu egin beharko du, hiru hilabeteko epean.

15.artikulua.- Fundazioaren lehendakaria.

Bada, Patronatuak, bere kideen artean, lehendakaria aukeratuko du, bestalde patronu soila gertatuko da lehendakari.

Lehendakariari dagokio patronatuaren bileretarako deialdia egitea, bere kabuz edo patronatu kideen herenak behintzat hala eskatuta: halaber, patronatuko bileretan eztabaidak zuzenduko ditu, eta haren erabakiak betearaziko.

Patronatuaren lehendakariak gobernu-organo horren ordezkaritza gorena izango du. Hari dagozkio organo horren kide guztiek dituzten ahalmenak, bai eta estatutu hauek patronatuaren lehendakariari ematen dizkietenak. Horrez gain, fundazioa ordezkatzeko du, Patronatuaren eta fundazioaren beste organoen erabakien ondoriozko egintza eta kontratu guztietan, bai eta auzietan, espedienteetan, administrazio arazoetan, gobernu arazoetan, epaiketa-arazoetan nahiz epaiketatik kanpokoetan ere halakoes gertatuz gero. Lehendakariak ahalmena du, orobat, prokuradoreei nahiz abokatuak auzietarako ahalorde orokorra emateko, helburu hori bete dadin.



16.artikulua.- Lehendakariordea.

Bada, Patronatuak, bere kideen artean, lehendakariordea izendatu ahal izango du, horretarako, patronatuko kide gehienek izendapenaren aldeko botoa eman beharko dute.

Lehendakariordea lehendakariaren ordezkoa izango da, hori absente edo gaixorik dagoenean; egoera horiek egiaztatzeko, nahikoa da haiek egindako adierazpen hutsa. Lehendakaria eta lehendakariordea, biak ala biak, absente egonez gero, patronatuko kideen artean zaharrenak ordezkatzuko du lehendakaria.

17.artikulua.- Idazkaria.

Bada, Patronatuak, bere kideen artean nahiz horietatik kanpo, idazkaria izendatu ahal izango du. Idazkariak fundazioaren administrazio-lanak zuzendu, dokumentazioa zaindu eta aktak prestatuko ditu. Horrez gain, aktak onetsi, eta lehendakariaren ikus-onespena lortu eta gero, horiok akta-liburuan idatziko ditu.

18.artikulua.- Diruzaina.

Bada, Patronatuak, bere kideen artean nahiz horietatik kanpo, eta egoki baderitzo, diruzaina izendatu ahal izango du. Diruzainaren eginkizunak patronatuak jarriko ditu.

Diruzainaren eginkizunak ondorengoak izan daitezke:

- 1.- Fundazioaren fondoak Bildu eta zaintzea.
- 2.- Sarrera eta gastuen balantzean aurkeztu eta sinatzea.
- 3.- Inbentarioen liburua, kontuena, aurrekontuena eta egunkari liburuaren ardura izatea.

19.artikulua.- Fundazioaren zerbitzupeko langileak.

Era berean, patronatuak gobernu-organo horren kideetarik baten edo kanpoko kide baten esku jarri ahal izango du kudeaketa, edo fundazioaren izenean bestelako jarduerak gauzatzea; hala izanez gero, eginkizunen arabera ordainsari egokia emango zaio.

Gerenteari emandako ahalorde orokorrak Euskal Autonomi Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

20.artikulua.- Patronatuaren eskumenak.

Patronatuaren eskumenak bere gain hartzen du fundazioaren gobernuak behar duen guztia, eta, bereziki, honako hau:

- 1.- Fundazioaren orientazioa zein izango den xedatzea, horren hobeto bere ditzan bere helburuak.
- 2.- Baliabide ekonomiko eta finantza-baliabide guztiak administratzea, baliabideon jatorria edozein izanik ere.
- 3.- Honako dokumentu hauek onestea: inbentarioa, egoera-balantzea, emaitzen kontua, aurreko ekitaldiari buruzko memoria; eta epealdi horri dagokionez, sarrera eta gastuen aurrekontu-likidazioa onestea.
- 4.- Hurrengo ekitaldirako, sarrera eta gastuen aurrekontua onartzea, bai eta horiek azaltzeko txostena ere.
- 5.- Barne araubidea onestea, baldin eta hori komeni bada.
- 6.- Batzorde delegatuak sortzea, horien kideak izendatzea, horien ahalmenak zehaztea, eta ahalduak orokorrak edota bereziak ematea, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
- 7.- Zuzendaritzako karguak, kargu betearazleak eta aholkularitzakoak izendatzea; eta orobat, gainerako langile teknikoak, administratiboak, lan kontratadunak eta mendeak kontratatzea beharrezkoak direnean, estatutu hauen 19. artikuluan agindutakoarekin bat etorritik.
- 8.- Orotariko egintzak eta kontratuak formalizatu eta onestea: zibilak, merkataritzakoak. lan-kontratadunak, administratiboak eta beste edozein motatakoak, baldin eta horiek beharrezkoak badira fundazioaren helburuak hobeto betetzeko.
- 9.- Bidezkoak diren proposamenak helaraztea erakunde eskudunei, gai jakin horietan goragoko organoak erabaki behar duenean.
- 10.- Enpresa, entitate, erakunde eta pertsona fisikoen parte hartzea sustatzea, bai elkarlan teknikorako programetan, bai langile kualifikatuak trebatzeko programetan; horretarako, funtsak jarri eta lankidetzat-hitzarmenak sinatuko dira.
- 11.- Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartu eta arbitratzea, baldin eta hori komenigarria bada fundazioarentzat, eta, betiere, Babesleztari horren berri emanda.
- 12.- Fundazioaren estatutuak aldatzea, hori beharrezkoa baldin bada eratzaileren borondatea hobeto betetzeko.

21.artikulua.- Delegazioak, ahalduak eta Batzorde delegatuak.

Patronatuak bere kideetatik bati edo batzuei eskuordetu ahal dizkie bere ahal guztiak edo horietatik zenbait, honako hauek izan ezik:



- a) Urteko kontuen onespena.
- B) Jarduera-planaren onespena.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.
- e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, ez badaude erabat lotuta helburuei.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien parte baten bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desagiteko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan, patronatuak Batzorde eskuordeak eta Batzorde betearazleak eratu ahal izango ditu, eta horiek kasuan-kasuan zehaztutako ahalmenak izango dituzte. Patronatuak, halaber, ahaldu orokorrak edota bereziak izendatu ahal izango ditu, eta horien eginkizunak mankomunatuak edo solidarioak izan daitezke.

Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira eskuordetzeak eta ahalduntze orokorrak, auzietarako direnean izan ezik; horien guztien ezeztatzeak ere inskribatu beharko dira.

22.artikulua. Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearaztea, legean eta fundazioaren estatutuetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitate osoari eustea, kudeatzaile on batek ekonomia eta finantza-arloan dituen irizpideen arabera.

Kargua ordezkari leialei dagokien arretarekin betetzea.

23.artikulua.- Autokontratazioaren gaineko debekua.

Patronatuko kideek ezin izango dute kontraturik egin fundazioarekin, ez beren izenean, ez inoren izenean, Babesletzak baimena eman ezik.

24.-artikulua.- Erantzukizuna.

1.- Patronatuko kideek fundazioarekiko erantzukizuna dute, legeek ezartzen duten neurri eta kasuetan.

2.- Ez dute erantzukizunik izango, ordea, baldin eta erantzukizuna zein erabakik ondorioztatu, eta erabaki horren aurka jarri badira edo erabaki hori hartzeko orduan parte hartu ez badute, salbu eta frogatze3n denean, erabakiaren berri izanik, ez zutela bere desadostasuna adierazi.

3.-Jurisdikzio arruntean gobernu-organoei erantzukizuna galdatzeko akzioa egikaritzen bada, jurisdikzio hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da, bai eta horren ondorioz emandako epai irmoa ere.

4.- Babesletzak erantzukizuneko egintza hori egikaritu ahal izango du, bere kabuz edo interes legitimoa duenak zentzuz hala .Erantzaileak ere akzio hori egikaritu ahal izango du, baldin eta patronatuko kideen jarduna fundazioaren helburuen aurkakoa bada, edo helburu horientzat kaltegarria bada.

2.KAPITULUA. PATRONATUAREN JARDUERARI BURUZKO ARAUBIDEA.

25.artikulua. Barne jarduera.

Patronatuak, urtean zehar, bi bilera egin behar ditu gutxienez. Urteko lehenengo sei hileetan Bildu behar da nahitaez honako hauok onesteko: aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jardueren memoria, aurreko ekitaldi horretako egoera-balantzea eta emaitzen kontua, estatutu hauen 32.artikuluaren ezarritakoaren arabera. Era berean, laugarren hiruhilekoan, hurrengo ekitaldirako aurrekontua onetsi egingo da, aurretiaz deialdia eginda. Onespen hori Babesletzari igorriko zaio, abenduaren 31 baino lehen.

Patronatuaren bileretarako deialdiak idatziz egin behar dira. Deialdian, lehendakariak erabakitako gai-zerrenda izango du; gai-zerrenda erabakitzeko, lehendakariak kontuan hartuko ditu gobernu-organismoaren kideak egindako iradokizunak. Bilera-data baino 15-30 egun baliodun lehenago gutxienez egin behar da deialdia, premiazko kasuetan izan ezik; kasu horietan, epea egutegiko hiru egunera labur daiteke.

26.artikulu. Eraketa eta erabakiak hartzea.



Patronatua, kolegiatua izan ezker, baliozkotasunez eratuta geratuko da; lehenengo deialdian, kideen erdiak eta bat gehiago bertaratzen direnean, zuzenean edo ordezkari bidez.

Aurreko paragrafoan aipatu quoruma lortu ezik, patronatua ordubete beranduago bilduko da, bigarren bilera horretan, nahikoa izango da patronatuaren herena gutxienez bertan bada, baldin eta horien artean lehendakari edo lehendakariorde titularrak badaude. Edozein modutan ere, ezinbestekoa da hiru kidek osatzea bigarren bilera hori. Dena den, patronatua biltzeko deialdia egin deia ulertuko da, eta patronatua baliozkotasunez areatuta geratuko da, baldin eta bertan kide guztiak badaude, eta guztiek aho batez onartzen badute bilera egitea.

Erabakiak hartzeko, botoen gehiengoa lortu behar da, honako kasu hauetan izan ezik:

- 1.- Aldaketa, bat-egite eta azkentzeari buruzko erabakien kasuan, nahitaezkoa izango da kideen bi herenek erabakiaren aldeko botoa ematea.
- 2.- Estatutuotan botaziorako beste quorum bat ezartzen denean, hori bete beharko da Berdinketa izanez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

Patronatuaren bilera bakoitzaren akta patronatuaren idazkariak egingo du. Aktak zehaztuko du zein tokitan eta egunetan egin den bilera, nor bertaratu den, zein gai eztabaidatu den, zein erabaki hartu den eta zein gai geratu den erabaki gabe.

III.-TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA.

1.KAPITULUA.OSAERA. ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZA.

27.artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Orotariko ondasunek eta eskubideek osatu ahal izango dute fundazioaren ondarea, baldin eta balio ekonomikoa badute.

Fundazioak arau aplikagarriak beteko ditu xedatze eta administratze-egintzak burutzeko; eta berari dagozkion helburuetarako erabiliko ditu horien etekinak edo errentak, beti ere, estatuto hauekin bat etorriz.

28.-artikulua.- Baliabideak.

Fundazioaren ondareak honako osagai hauek izango ditu:

- a) Hasierako zuzkidura, eratze-eskrituran agertzen dena.

-
- b) Eratzaileen eta atxikien ekarpenak eta kuotak; horiek ohikoak zein ezohikoak izan; eta, berebat, patrono osoek eta patrono elkartuek borondatez ordaindutako kuotak eta ekarpenak. Horiek ere ohikoak izan zein ezohikoak izan, baldin eta patronatuko kideek onartzen badute.
 - c) Etorkizunean, eta zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita, fundazioak eskuratutako ondasun eta eskubideak; eta bereziki, irabazizko amenera helbururik gabeko entitateen eta mezenasgorako sustagarri fiskalen erregimen fiskaleko, martxoaren 20ko. 4/2019. Arau foralaren ildoan beste pertsona, erakunde eta instituzio batzuek emandako legatuak, dohaintzak, ekarpenak eta diru-laguntzak. Babesletzari eman beharko zaizkio dohaintzak, legatuak eta herentziak onartu izanaren berri.
 - d) Ondareak eta fundazioaren jarduerak sorrarazitako etekinak edo errentak, produktuak edo etekinak, bai eta fundazioak zein zerbitzu eman eta zerbitzu horien ondoriozko ordainsariak ere, indarreko legeriaren arabera.
 - e) Beste edozein baliabide, legeria aplikagarriaren esparruan.

Ondorengo ondarezko zuzkidurak Patronatuak onartu beharko ditu, eta urteko kontuetan jaso behar dira.

Fundazioak bere zuzkidura handitzera zuzendu behar ditu diru-sarreraren soberakinak.

29.-artikulua.- Ondaren izandako aldaketak.

Fundazioaren patronatuak, uneoro, eta, egoera ekonomikoaren arabera zer komenti den kontuan hartuta, behar den guztietan, aldaketak, transformazioak eta hihuketak egin ahal izango ditu fundazioaren kapitalean; horien guztien helburu bakarra izan behar da fundazioaren kapitalak benetako balioa edo eskuratze-balioa ez galtzea, bere balio izendatuari eusteaz gain.

30.-artikulua. Fundazioaren ondarea zaintzea.

Fundazioaren ondarea zaindu eta jagoteko, honako erregela hauek beteko dira:

Ondasunak eta eskubideak fundazioaren ondare-osagaiak direnean, fundazioaren izenean egon, haren inbentarioan agertu, eta, hala denean, kasuan kasuko erregistroetan inskribatu behar dira.

Ondasun higiezinak edota eskubide errealak fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Gainerako ondasunak inskribatzeko modukoak badira, erregistro egokietan inskribatuko da.



Fundazioa bada titularra, baloreak, eskudirua, jabetza-tituluak, gordailu-gordekinak, eta oro har, jabaria, edukitza, erabilera, gozatzea eta beste edozein eskubide egiaztatzeko agiriak; horiek gordailutu egingo dira, fundazioaren izenean, patronatuak erabakitzen duen erakundean.

Gainerako ondasun higigarriak zaindu egingo dira, patronatuak erabakitzen duen moduan.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak inbentario liburuan zehaztuko dira. Liburu hori patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta bertan, patronatuaren ikuskaritzapean, horiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agertuko dira.

2.KAPITULUA.ARAUBIDE EKONOMIKOA.

31.artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa.

Ekitaldi ekonomikoa urtean urtekoa izango da, eta egutegiko urtearekin bat etorriko.

32.artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate-arloko betebeharrak

Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailu ditzaten. Kontuok irabazi asmorik gabeko erakundeetarako ezarritako kontabilitateari buruzko arauak bete beharko dituzte.

Fundazioaren urteko kontuek elementu hauek jasoko dituzte gutxienez: balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduera-planaren likidazioa. Orobat, Patronatuak kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako kasuetan.

Halaber, kontuotan datu hauek guztiak jaso beharko dira: fundazioaren ondarezko, ekonomia eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, Fundazioaren helburuak eta lege arauak bete direla jakinarazi eta egiaztatzeko betiere.

Fundazioak Jarduera-Plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, non diru-sarrerak eta gastuak adieraziko baititu orekaz. Aurrekontu hori Babesletzari aurkeztuko zaio, onartzen den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

3. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARAKO ERABLTZEKO ERREGELAK

33.artikulua.- Diru-sarrerak zertarako erabili eta administrazio-gastuak.

1.- Fundazioaren helburuak betetzeko bere ondasunak eta errentak erabiliko dira, xede horri zuzen-zuzenean lotuta daudela ulertzen baita.

2.- Fundazioak aldian-aldian programatuko ditu bere xedeari berezko zaizkion jarduerak; eta, horretarako, urtero-urtero, prestazioen plangintza egingo da, eta hori nola gauzatu eta esleituko den erabakiko da.

3.- Errenta garbien %70 gutxienez eta bestelako diru-sarrerak, direnak direla eta lortzen badira bederen, fundazioaren helburuak betetzeko erabiliko dira hiru urteko epean. Betiere horiei guztiei dagozkien zergak kenduko zaizkie.

Eratze-unean edota geroagoko une batean ekarpenak egiten badira ondare-zuzkidura gisa, ekarpenok betekizun horretatik salbuetsita geratuko dira.

Gainerako diru-sarrerak fundazioaren zuzkidura handitzeko erabiliko dira, administrazio-gastuak kendu eta gero. Gastu horiek ezin dira izan %20tik gorakoak; salbu eta, fundazioak zentzuzko eskaera egin ondoren, Babesletzak horretarako beren-beregi baimena ematen duenean, indarreko lege nahiz erregelamendu-xedapenetan agindutakoaren arabera.

34. artikulua.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jardueren garapena.

Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu Fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, halako jarduerak fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota jarduera horien osagarriak edo lagungarriak badira, eta betiere lehiaren defentsarako arauak men eginez.

Gainera, beste erakunde batzuetan partaide izanda ere parte hartu ahal izango dute beste edozein ekonomia-jardueratan, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

35. artikulua.- Xedatze- eta zergapetze-egintzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Fundazioak beraren ondarea osatzen duten ondasunen edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, baita kargatze-egintzak ere. Honako hauek, hain zuzen:

Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari, non zehaztuko baita xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta



horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren, orobat eragiketak fundazioari ez diola kalterik eragiten eta haren bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.

Xedatze- edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa fundazioaren aktiboaren % 60 baino handiagoa bada, Patronatuak azterlan ekonomikoa bat erantsi beharko dio erantzukizunpeko adierazpenari, profesional independente batek eginga. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du, bai eta eragiketa irizpide ekonomiko-finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela ere.

Aipatutako xedatze- edo zergapetze-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, edo beste edozein erregistroan inskribatuko dira, hala badagokio. Gainerako xedatze- edo zergapetze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso beharko dira.

IV. TITULUA. ALDAKETA. BAT EGITEA ETA AZKENTZEA.

36.artikulua.- Estatutuen Aldaketa.

Fundazioaren Patronatuak estatutu hauek aldatzea sustatu dezake, fundazioaren helburuak hobeto betetzeko egokia bada betiere, eta fundazioaren sortzaileek berariaz debekatu ezean.

Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da; Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoaz, gutxienez, hartu beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu.

37.artikulua.- Bat-egitea.

Patronatuak erabaki ahal izango du, halaber, beste erakunde batekin edo batzuekin bat egitea, baldin eta horrekin fundazioaren xedeari behar bezala erreparatzen bazaio. Erabakia zioduna izan behar da, eta horen aldeko botoa eman beharko dute patronatuko kideen bi herenek gutxienez.

38.artikulua. Azkentzea.

Fundazioa azkenduko da:

- 1.- Epea betetzean
- 2.- Helburua betetzean.

- 3.- Helburua betetzeko ezintasuna.
- 4.- Bat-egite prozesuak hori ondorioztatzen duenean.
- 5.- Epailearen ebazpen irmoak fundazioa desegiten duenean.
- 6.- Estatutu hauetan ezarritako kasu berezi gisa, patronatuak hori erabakitzen duenean.
- 7.- Legeak aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

39.artikulua.- Azkentze-prozedura.

Aurreko artikuluko 1 eta 2 zenbakietan adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa zuzenbide osoz azkenduko da.

Aurreko artikuluko beste zenbakietan adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa azkentzea Patronatuak erabaki beharko du eta Babesletzak berretsi. Patronatuaren erabakirik ez badago edota haren erabakia Babesletzak berresten ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko, Patronatuak edo/eta Babesletzak eskatuta, kasuen arabera.

Azkentze-erabakia, edozein modutan ere, zioduna izan behar da, eta bartan adierazi behar dira ondare-egoera eta likidazio-programa.

Fundazioen Erregistroan inskribatuko da azkentze-erabakia, edo, hala denean, epailearen ebazpen zioduna.

40.artikulua.- Likidazioa.

Fundazioa azkentzen bada –haren jatorria bat-egite prozeduraren bat den kasuetan izan ezik– edo Fundazioa azkentzeko arrazoiak betetzen badira, likidazio-prozesuari ekingo zaio. Prozesu hori Patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, epealdi horretan, «likidazioan» dagoen fundazio gisa identifikatu behar da.

Fundatzailearen borondatearekin bat etorriz, Fundazioaren likidaziotik geratzen diren ondasunak eta eskubideak interes orokorreko helburuetarako erabiliko dira, hori eratze-eskrituran aipatu baita; eta patronatuak erabakiko du zein diren helburu horiek fundazioaren izpiritua gogoan izanik. Patronatuak hori egin ezik, Babesletzak beste fundazio edo erakunde batzuei helaraziko dizkie ondasun eta eskubide horiek, baldin eta fundazio edo erakunde horien helburuak eta azkendutako fundazioarenak antzekoak badira; horien arten lehentasuna izango dute udalerrri berean, edo, horren ezean, lurralde historiko berean egoitza dutenek.



V.TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEI BURUZKO ARAUBIDEA.

41.artikulua.- Eratzaile atxikiak.

Eraketa-eskriturak eratze-agiriaren izaera du, eta horri atxiki ahal izango zaizkio, hura egiletsi eta gero ere, eratzaileen kategoria bereganatuz, beste pertsona fisiko eta juridiko batzuk, baldin eta atxikitze hori eraketa egiten denetik bi urteko epean gertatzen bada.

Aldez aurretik finkatutako epe horretan, eratzaile gisa atxikitzeren bat gertatzen bada, eratzaileak edo patronatukide ahaldunek onetsi egin beharko dute atxikitze hori, hurrengo paragrafoan ezartzen duten moduan, hautagaiek zein laguntza ekonomiko eman beharko duten ere patronatukideek finkatuko dute.

Aurretiaz ezarritako atxikitze-epea bukatzen ez den bitartean, patronatuaren eraketa etenda geratuko da. Eta eratze-agirian sortzaileak zein kide izendatu eta kide horiek ahaldunduta geratzen dira, modu mankomunatuan estatutuek patronatuari ematen dizkieten ahalmen guztiak egikaritzeko.

42.artikulua.- Laguntzaile atxikiak.

Eratze-eskritura egiletsi eta gero, fundazioari atxiki ahal izango zaizkio pertsona fisikoak edo juridikoak laguntzaile atxiki gisa, baldin eta horien jarduera edo ekarpena lagungarri gerta badaiteke fundazioaren xedea betetzeko.

Aurretiaz aipatu izaerarekin atxikitze-eskaerak egiten direnean, patronatu kideek horiek onetsi beharko dituzte, erabateko gehiengoarekin. Patronatuak finkatuko du, halaber, zein izango den hautagaiek eman beharko duten laguntza ekonomikoa. Laguntzaile horiek patronatuan parte hartu ahal izango dute, horrek hala erabakiz gero.

43.artikulua. Ohorezko laguntzaileak.

Patronatuak ohorezko laguntzaile izendatu ahal izango ditu pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta pertsona horiek laguntza aipagarria eman badute edo ematen badute fundazioaren xedea lortzeko.

VI. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA.

44.artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.


Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren zaintzapean, aholkularitzapean eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

45.artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

Fundazio honen eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da, bai eta haren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, legearen arabera hala egin behar badute

46. artikulua. Zehapen-araubidea.

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean ezarritako zehazpen-araubidea bete behar du.

A handwritten signature in black ink, consisting of stylized, cursive letters, likely representing the name of the signatory.